



AKTA

2014. urteko SAN PEDRO JAIK antolatzeke parte hartze prozesua

Proceso de participación ciudadana para la organización de las fiestas de SAN PEDRO del 2014

Bilera/Reunión: 1	Helburua/Objetivo: San Pedro jaien EZAUGARRIAK zehaztu. Definir las CARACTERÍSTICAS de las fiestas de San Pedro.
Eguna/Día: 2014.01.28	
Lekua/Lugar: Udaletxe berriko hall-a	

BERTARATUAK / PERSONAS REUNIDAS: 24 HERRITAR

ELKARTEETAKO ORDEZKARIAK / REPRESENTANTES ASOCIACIONES:

- Ttakun.
- Ostadar.
- Beltzak.
- Intza.
- Palomo Linares.
- Zero Zabor.
- Dinbi-Banda.
- Erketz.
- Xumela.

- Alboka.
- Kukuka.
- Beteranoen Danborrada.
- Sorgin Jaiak.
- Jalgune.
- Bertsozale elkarte.
- Zabaleta Auzolan.
- Katxiporreta.

1. DINAMIKAREN AURKEZPENA / PRESENTACIÓN DINÁMICA:

Jaietan Blai! 2014 dinamika aurkeztu da. 2012 eta 2013. urteetan ere aurrera eramandako dinamika da hau. Aurtengoan beste forma bat ematea erabaki da, errentagarriagoa izan dadin: bilera gutxiago (bi), helburu zehatzekin, eta era dinamikoago batetan planteatuta:

Se ha presentado la dinámica Jaietan Blai! 2014. Es una dinámica que ya viene llevándose a cabo los años 2012 y 2013. Este año tomará otra forma para que así resulte mas rentable: menos reuniones (dos), con objetivos concretos y planteadas de unas manera más dinámica:





1. Festen EZAUGARRIAK definitzeko topaketa (gaurkoari dagokiona).
2. Behin festek nolakoak izan beharko duten zehaztuta, PROPOSAMEN ZEHATZAK biltzeko bilera.

Ostean, bileraren dinamikaren berri eman da: 3 azpitalde sortuko dira, eta hauetariko bakoitzetik parte hartzaile guztiak pasatuko dira; bakoitzean, festaren aspektu ezberdin baten inguruan jardungo dira, 15 minutuz gehienez:

1. BELAUNALDIAK (festa adinkako perspektiba batetik ulertzeko taldea). Rosa Illarramendi, Gazteria teknikariak dinamizatuko du talde hau.
2. KALE ANIMAZIOA eta MUSIKA. Alaitz Mendizabal, Parte hartze saileko zinegotzia izango da talde honen dinamizazioaz arduratuko dena.
3. EKITALDI GASTRONOMIKO-KULTURALAK eta UDAL EKINTZAK. Taxio Arrizabalaga izango da honen arduradun.

Erronda osoa bukatutakoan, talde handia berriro bilduko da aipatutakoak komunean jartzeko.

Taldeak goxokiak banatuaz (kolorearen arabera sortuko dira).

1. Encuentro para definir las CARACTERÍSTICAS de la fiesta (reunión actual).
2. Una vez concretado cómo debieran ser las fiestas, reunión para la recogida de PROPUESTAS CONCRETAS.

A continuación, se ha explicado la dinámica planteada para la reunión en concreto: se crearán 3 subgrupos, y todas las personas participantes pasarán por cada uno de ellos, para tratar distintos aspectos de la fiesta, un máximo de 15 minutos.

1. GENERACIONES (grupo para observar la fiesta desde una perspectiva de edades). Rosa Illarramendi, técnico de Juventud, será la encargada de la dinamización de este grupo.
2. ANIMACIÓN CALLEJERA y MÚSICA. Alaitz Mendizabal, concejala de participación ciudadana, dinamizará este otro.
3. ACTIVIDADES CULTURALES –GASTRONÓMICAS y ACTOS MUNICIPALES. Taxio Arrizabalaga será el encargado de este último.

Una vez finalizada la ronda por los tres grupos, volverá a reunirse el grupo grande para la puesta en común de todas las ideas.

Los grupos serán organizados mediante reparto de caramelos (por color).



2. DINAMIKAREN MUGAK / LÍMITES DE LA DINÁMICA:

Festen antolaketarako parte hartze prozesua martxan jartzen bada ere, herritarren proposamenak gauzatzeko zenbait muga daudela hasieratik garbi azaldu izan nahi da. Honako hauek aipatu dira:

- Festen egunak: aurrez erabakita daude jada: ekainaren 27tik 30era.
- Aurrekontua: 2014. urteko aurrekontuan aurreikusitako zenbatekoa gastatu ahalko da gehienez: 120.000€ inguru (laguntzak barne).
- Udal ekintzak (txupinazoak, omenaldia) moldatu daitezke, baina kendu ez.
- Festen programaren baitan elkarrekin antolatzen dituzten ekitaldien inguruan proposamenak jasoko dira eta antolatzaileei helaraziko zaizkie, baina hauek aldatzeko azken erabakia haiena izango da.

A continuación, se ha explicado a las personas integrantes de la reunión que existen ciertos límites pese a convocar un proceso de participación ciudadana. Se han querido dejar claros desde un comienzo:

- Los días en los que se celebrarán las fiestas están ya decididos: del 27 al 30 de junio.
- Presupuesto: será el contemplado en el proyecto presupuestario del 2014, sobre 120.000€ (ayudas incluidas).
- Los actos municipales (txupinazos, homenaje,...) podrán ser modificados pero no quitados.
- Podrán hacerse propuestas sobre las actividades organizadas por entidades dentro del programa de fiestas, pero las posibles modificaciones en estas serán decisión exclusiva de sus organizadores.

3. EZAUGARRIAK ZEHAZTEKO TALDEKAKO DINAMIKA / DINÁMICA DE GRUPO PARA DEFINIR LAS CARACTERÍSTICAS:

Jarraian, jasotako proposamen guztiak sailkatuta aurkezten dira, bai talde txikietan jasoak eta baita komunean jarritakoan sortutako ekarpen eta iritziak ere.

A continuación, se presentan todas las características en tablas, tanto las recogidas en los grupos temáticos como los del debate general final.



1. EKITALDI GASTRO-KULTURALAK ETA UDAL EKINTZAK

Kultur ekitaldiak

KALE GIROA: planteatzen diren ekitaldi kulturalak, antzerkiak, ... kalean egin behar dira, festari kale giroa emateko. Hori da festa sortzen duena, jendea, kale giroa,...

EKITALDI KULTURAL HANDIAK KALEAN: horrelakoak toki itxietan egiten badira publiko zehatz bat izango dute; kalean eginez, ordea, jendearen kuriositatea sortzen dute. Adibidez: bertso saioa Okendon egitea proposatu da. Denetariko iritziak daude hala ere. Bertsoak kontzentrazio eta giro bat behar du, eta barruan egiteak laguntzen du. Hori ziurtatuko balitz, kalean egitea ere ondo legokeela aipatu da.

FESTA EGUNEZ INDARTU: gauetako ekitaldiak garestiagoak dira, eta egunean zehar gauzatzen direnak ere kontutan hartu behar dira.

EKITALDI PARTE HARTZAILEAK: herritarrek parte hartu dezaketen ekitaldi kulturalak sustatu behar dira, herritarrak bertan inplikatzeko bilatuaz. Jendeak asko gozatzen du.

GAUEKO PROGRAMAZIO KULTURAL ZABALA. HERRITARREN PARTE HARTZEA: musika kontzertuak soilik izan beharrean, bestelako ekitaldiak ere sustatu gau partean, herritarren parte hartzea bilatzen dutenak. Adibidez, Kukuka proposamena: KOREOGRAFIA LEHIAKETA. 12.00ak aldera. Lehenagotik deialdi bat eginda. Haiek ere sustatuko lukete ikasleen artean. Dena landu beharko litzateke: jantzia, koreografia, ... Festa giroan, baina serioekin eginda, epaimahaiarekin, sariekin, aurkezle bat dena giron, ... Gazte eta helduei zabalik.

BERRIKUNTZAK: herriko festak urtean behin direla kontutan hartuaz, ekitaldi berriak, urteko gainontzeko festetan ez ditugunak ere beharrezkoak dira.

EUSKARAZ: garrantzitsua da hizkuntzaren presentzia horrelako ekitaldi guztietan (baita musikalak, kirolezkoak, ... ere). Dakienak gozatuko du eta ez



	<p>dakienak praktikatu.</p>
Ekitaldi gastronomikoak	<p>INDARTU ETA UDALETIK SUSTATU: herri giroa sortzen dute, adin ezberdinetako jende eta elkarten parte hartzea,... Elkarteekin kontatu daiteke horretarako, baina parte hartzea elkarte gisara baino, herritar gisara egitea egokiagoa litzateke (hau da, elkarteek haien kideak gonbidatu ditzatela parte hartzera, eta ez ordezkaritza modura).</p> <p>EKITALDI HAUEK ELKARTEEK ANTOLATZEA ERE SUSTATU: horretarako udalak azpiegitura minimo batzuk eskaini beharko lituzke, elkarten lana errazteko: mahaiak, aulkiak, baxera berrerabilgarriak,... Baxera mota hauek txosnetan (Sorgin Jaiak badituela eta erabiltzen dituela aipatu du), edota tabernetan edalontzi berrerabilgarriak erabiltzea ere sustatu beharko litzateke udalaren aldetik.</p> <p>ANIZTASUNA: ekitaldi gastronomikoek aniztasunaren gaia lantzeko beta ere ematen dute. Herrian bizi diren beste herrialdeetako kulturetako jendea gonbidatu daiteke ekitaldi gastronomiko eta kulturalak prestatzera eta parte hartzera. Adibidez: ARROZEN FESTA. Kultura guztietan egiten da arroza, baina modu ezberdinetan. Horrekin lotutako txapelketa bat antolatu daiteke adibidez.</p>
Kirol jarduerak	<p>KOADRILLEN ARTEKO GIROA: koadrillen arteko jolasak, txapelketak, horrelakoak sustatzea beharrezkoa da, giro berezia sortzen baitu festaren baitan, jendea elkartzen da,...</p> <p>TALDEKAKO KIROLAK KALE GIROTZEKO: saskibaloiko 3x3 txapelketak, futbolin erraldoia,... Heldu eta gazteentzako jarduerak.</p>
Udal ekintzak	<p>FESTA GIROTU ETA EZAUGARRITZEN DUTE: beraz, potenteak behar dute. Txupinazoetan buruhandiak, erraldoiak, txaranga,... behar dira.</p> <p>PIROTEKNIA: oso ekitaldi deigarriak dira, egunero egotea sustatu beharko litzateke, eta horrela su artifizialek sortzen duten gastua ekidin (kentzea proposatu da). Aukera bat: Zezen Suzkoa, azken egunean denak kolpetik atera beharrean, egunero bat edo bi ateratzea 00.00ak aldean.</p>



	<p>BAKILLAK: PLANTEAMENDU ALDAKETA: Atsobakarren egiten direnetik publiko gazte bat soilik erakartzen dute eta ez daude festan oso bameratuta. Ordezteko alternatibak egon daitezke: SOKAMUTURRA aipatu da (Okendon egin eta giro hori herrira erakarri); KENDU eta dirua beste zerbaitetara bideratu; ENTZIERRO ALTERNATIBO BAT antolatu (Palomo Linares Peña Taurinaren proposamena izan da hau), kartoizko zezen-buruekin herriguneko kaleetan zehar (Kale Nagusia-Hipodromo etorbidea-Okendo).</p> <p>HAUR DANBORRADA: mantentzea garrantzitsua da, haurrei asko gustatzen zaie eta giroa sortzen du.</p>
<p>Festaren ezaugarri orokorrak</p>	<p>GARBIKETA: egunez festa sustatzearekin batera, garrantzitsua da kale eta plazak garbi egotea, horrela arazorik sortu ez dadin.</p> <p>GAIKAKO BILKETA: garbiketaz gain, hondakinak gaika biltzeko aukera izatea ere garrantzitsua da oso. Horretarako baliabideak jarri beharko lituzke udalak (denetariko kontenedoreak).</p>



1. PROGRAMACIÓN GASTRO-CULTURAL Y ACTOS MUNICIPALES

Actos culturales

AMBIENTE CALLEJERO: todos los actos culturales de fiestas (teatros, etc.) debieran ser en la calle, para así fomentar el ambiente. Es precisamente ese ambiente el que crea la fiesta, el que mueve a la gente,...

GRANDES ACTOS CULTURALES EN LA CALLE: si los grandes actos se llevan a cabo en espacios cerrados solamente acudirá un público en concreto; en cambio, si se llevan a cabo en la calle, generan curiosidad entre la gente. Como ejemplo: se propone trasladar el espectáculo de bertsolaris a la plaza Okendo. Hay todo tipo de opiniones. En un espectáculo de bertsos la concentración es muy importante, y los espacios cerrados ayudan en ello. Si en la calle se asegurara este ambiente, se considera que la idea de trasladar el espectáculo es interesante.

FOMENTAR LA FIESTA DURANTE EL DÍA: los espectáculos nocturnos son más caros, debe tomarse muy en cuenta la programación diurna ya que la disfrutan todas las edades.

ACTOS PARTICIPATIVOS: se deben fomentar actos culturales que fomenten la participación activa de la ciudadanía, para que todo el mundo pueda implicarse más. La gente lo disfruta muchísimo.

PROGRAMACIÓN NOCTURNA AMPLIA PARTICIPACIÓN: en vez de organizar tan solo conciertos por la noche, también pueden funcionar muy bien otro tipo de actos que fomenten más la participación de la gente. Por ejemplo, propuesta de Kukuka: CONCURSO DE COREOGRAFÍAS. Se llevaría a cabo sobre las 12.00 de la noche, haciendo una convocatoria previa. Los responsables del grupo de danza y teatro comentan que desde su escuela también lo fomentarían. Las personas participantes tendrían que trabajar la coreografía, el vestuario, ... En ambiente festivo, pero de manera seria, con jurado, premios, presentador/ra, ... Y abierto tanto a jóvenes como a mayores.



	<p>NOVEDADES: teniendo en cuenta que las fiestas del pueblo son una vez al año, es necesaria una programación cultural distinta a la que se vive durante otras fiestas.</p> <p>EN EUSKARA: la presencia del euskara en este tipo de actos es imprescindible (también en los musicales, los deportivos,...). El que conoce el idioma lo disfruta, y el que no lo practica.</p>
<p>Actos gastronómicos</p>	<p>REFORZARLOS Y FOMENTARLOS DESDE EL AYUNTAMIENTO: este tipo de actos generan muy buen ambiente popular, participa gente de todas las edades, miembros de entidades y particulares,... Se puede contar con las Sociedades Gastronómicas para organizar algo así, pero se considera que éstas deberían fomentar que sus miembros participen de manera individual (que inviten a sus miembros a participar pero no en representación de la Sociedad).</p> <p>FOMENTAR QUE LAS ASOCIACIONES ORGANICEN ESTE TIPO DE ACTOS: para ello, el Ayuntamiento debería tener disponible unas infraestructuras mínimas, para facilitar el trabajo a las asociaciones: mesas, sillas, vajillas reutilizables,... (Sorgin Jaiak comenta que en la txozna utilizan este tipo de materiales). También podría fomentarse el uso de vajillas reutilizables en los bares durante esos días.</p> <p>DIVERSIDAD: los actos en relación con la gastronomía también dan pie a trabajar el tema de la diversidad. Por ejemplo, puede invitarse a gentes de diversas culturas a preparar comidas típicas de su lugar de procedencia. O puede celebrarse la FIESTA DE LOS ARROCES: es una comida presente en todas las culturas, pero siempre preparado de maneras diferentes. Puede ser una buena idea para organizar un concurso, por ejemplo.</p>
<p>Actividades deportivas</p>	<p>AMBIENTE DE CUADRILLA: se deben fomentar juegos, campeonatos,... entre cuadrillas, se crea un ambiente especial, la gente se junta,...</p> <p>DEPORTES EN GRUPO PARA AMBIENTAR LA CALLE: campeonatos 3x3 de baloncesto, futbolín gigante,... Pueden ser actividades para jóvenes y adultos.</p>
	<p>AMBIENTAN Y CARACTERIZAN LA FIESTA: por lo tanto,</p>



Actos municipales	<p>txupinazos, homenaje,... deben ser potentes, ayudados de cabezudos, gigantes, charangas,...</p>
	<p>PIROTECNIA: son espectáculos muy llamativos, deberían llevarse a cabo a diario, y así eliminar el gran gasto que suponen los fuegos artificiales (se ha propuesto eliminarlos). Una opción: en vez de hacer el Toro de Fuego tan solo el último día, que salgan 2 a hacer un recorrido todos los días de fiesta sobre las 00.00.</p>
	<p>VAQUILLAS: CAMBIO DE PLANTEAMIENTO: desde que se celebran en Atsobakar no están demasiado integrados en las fiestas. Existen alternativas: SOKAMUTURRA (en Okendo; se ha explicado que plantea grandes dificultades); ELIMINARLAS del programa y fomentar otras actividades con ese dinero; organizar un ENCIERRO ALTERNATIVO (propuesta de la Sociedad Palomo Linares), con cabezas de toro de cartón-piedra (por la calle Mayor, Avenida del Hipodromo, Okendo).</p>
Características generales de la fiesta	<p>TAMBORRADA INFANTIL: es importante mantenerla, a las niñas y niños les hace mucha ilusión.</p>
	<p>LIMPIEZA: es tremendamente importante que durante el día las plazas y calles estén limpias, para que no se generen problemas.</p>
	<p>RECOGIDA SELECTIVA DE RESIDUOS: además de la limpieza, es muy importante fomentar también la recogida selectiva de residuos. Para ello, el Ayuntamiento debería facilitar recursos (contenedores de todo tipo).</p>



2. KALE ANIMAZIOA ETA MUSIKA

Musika	<p>EUSKAL MUSIKA SUSTATU: garrantzia berezia eman behar zaio, bai orkestretan, bai Okendo plazako programazioan,... Okendon euskal musika ziurtatu, beste urte batzuetako esperientzia ikusita oso ondo funtzionatzen du eta herria girotzen du. Andatza eta Isla plazako orkestrak ere bai, euskal kantak jotzen dituztela ziurtatu. Dantza egiteko musika jo behar dute. Publiko murrizta mugitzen dute, aurrekontuan ere nabaritu behar da hau (gutxiago gastatu). Kalitatezko euskal musika sustatu behar da ekitaldi handietan. Trikitixa Okendon ondo legoke.</p>
	<p>MUSIKA GUZTIENTZAT, HAUR, GAZTE, HELDU, FAMILIA,...: gazteentzat gaueko kontzertuak mantentzeaz gain, erromeriak arratsalde partean ere hasi daitezke, 19.00etatik 21.00etara, horrela publiko zabalago, familiarrago batengana heltzeko. Afalostean, 23.00etan edo jarraitu dezake, eta gero kontzertuak egin.</p>
	<p>FESTA GIROTU: kontzertuak hasi aurretik, adibidez, animatzaileak egon daitezke behean jendea girotzen. Ibiliko dantzak eta mota horretako ekitaldi girotuak ere antolatu daitezke.</p>
Kale animazioa	<p>HERRIKO MERKATARITZA ETA OSTALARITZA SUSTATU FESTETAN: txaranga-pote, pintxo-potea, txalaparta-potea,... tabernaz taberna. Egunero sustatu beharko lirake horrelako ekimenak.</p>
	<p>KALE GIROA SUSTATU: kale animazioa zabaldu eta pisu gehiago eman. Elektrotxaranga, batukadak,... kalea girotzen duten ekintzak. Jende asko biltzen dute horrelako ekintzek. Mugikorrak behar dute izan, ez finkoak.</p>
Barrakak	<p>EUSKAL MUSIKA: zaila bada ere, beste herri batzuetan egiten den moduan, euskal musika ere jartzera behartu. Ziurtatzea zaila bada ere, eskatuta gabe baino gehiago jarriko dute.</p>
Kokapena	<p>AUZOETAKO JENDEA FESTARA GEHITU: festen gune</p>



	<p>nagusia Okendo izan behar da, baina inguruko auzoetako jendea bertara gerturatu behar da. Horretarako, batukadak, txarangak,... itzulua egin dezakete, Okendotik hasi, auzoetara joan eta Okendon bukatu.</p>
	<p>ALDI BEREKO EKITALDIAK: errepikatzen badira, publiko ezberdinarentzat izan daitezela, eta toki ezberdinetan planteatuta.</p>
Bestelakoak	<p>PROGRAMA ZABALDU: garrantzitsua da, eskuko programaz gain, bestela ere ekintzak ondo zabaltzea, herritarrak jakitun izan daitezen. Kartelak,... erabiltzeaz gain, Maratoiean egiten den moduan, kamioi bat pasatu daiteke heritik hau iragartzen, adibidez.</p>



2. ANIMACIÓN CALLEJERA Y MUSICA

Música	FOMENTAR MÚSICA VASCA: debe tener gran presencia, tranto en la orquestas, verbenas, actuaciones de Okendo,... En Okendo debe asegurarse que la programación sea en euskara; tomando en cuenta anteriores años se genera muy buen ambiente. Las orquestas de Andatza y Isla deben tocar música de baile. También deberían tocar canciones en euskara. El público que mueven es más escaso que otros actos, esto debería verse reflejado en el presupuesto. En los grandes espectáculos debe tener presencia la música vasca de calidad. Espectáculo de trikitixas en Okendo.
	MÚSICA PARA TODOS LOS PÚBLICOS, NIÑAS/OS, JÓVENES, MAYORES, FAMILIAS,...: además de mantener los conciertos para un público más joven por la noche, podría plantearse una oferta musical por las tardes, de 19.00 a 21.00 por ejemplo, para un público más amplio, más familiar. Tras la cena, el espectáculo podría continuar hasta las 00.00, y después comenzar con los conciertos.
	AMBIENTAR LA FIESTA: antes de comenzar los conciertos, por ejemplo, puede haber animadores entre la gente. O pueden plantearse espectáculos dirigidos por animadores, tanto musicales como culturales (Bailes dirigidos, por ejemplo).
Animación callejera	FOMENTAR EL COMERCIO Y LA HOSTELERÍA LOCAL: se deberían organizar charanga-potes, pintxo-potes, txalaparta-potes,... a diario, de bar en bar.
	AMBIENTE EN LA CALLE: en las fiestas la programación callejera debe tener más peso. Electrotxarangas, batukadas y todo tipo de espectáculos que ambienten las calles. Mueven a muchísima gente. Deben ser móviles, no fijos en un lugar concreto.
Barracas	MÚSICA EN EUSKARA: pese a ser difícil, se debe procurar que en las barracas también se escuche música en euskara, solicitándolo expresamente en el acuerdo. Aunque sea difícil hacer un seguimiento concreto de esto, si no se intenta nada se conseguirá.



Ubicación	DE LOS BARRIOS AL CENTRO: pese a que el centro neurálgico de la fiesta sea Okendo, se debe procurar que la gente de los barrios se acerque. Para ello, las batukadas, charangas, etc. pueden hacer un recorrido pasando por distintos barrios, y llegando finalmente a Okendo.
	ACTOS AL MISMO TIEMPO: si hay actos que se repiten, o que se programan al mismo tiempo, estos deben situarse en lugares diferentes entre sí, y también ser para públicos distintos.
Otros	PUBLICITAR PROGRAMA: es importante que, además del programa de mano, carteles, etc., la gente sepa día a día lo que hay en la fiesta. Para ello, se puede, por ejemplo, como se hace en el Euskararen Maratoia, recorrer el pueblo con un camión, animando a la ciudadanía y narrando lo que habrá durante ese día.



3. BELAUNALDIAK

** Azpitalde honetako hainbat proposamen errepikatu egiten dira, adinari atentzio berezia jarrita aztertu baitira.*

<p>Haur eta nerabeak</p>	<p>TXUPINA: haurren txupina haientzat bereziki karakterizatu behar da, haurren festaren hasiera gisara. Mantentzea egokia da, baldin eta hau ondo egiten den (bestela bi txupinazo egoteak ez du zentzu askorik). Festeren hasiera gisara, potentzia behar du izan.</p> <p>BARRAKAK: egun batetan prezioa merkeagoa izatea ondo legoke, jende gehiago mugituko lukeelako horrek.</p>
<p>Gazteak</p>	<p>TALDEKAKO KIROL TXAPELKETAK eta LEHIAKETAK: gazte koadrilek parte hartzea sustatzeko, horrelako txapelketa eta kirol erakustaldiak sustatu behar dira: saskibaloia 3x3, futbolen erraldoiak,... Haur, gazte, heldu eta familiek parte hartuko lukete hemen. Ostadarrek beste urteetan antolatu izan dituen jolasak oso positibotzat jo dira.</p> <p>BAKILLAK: Atsotokarrek bakillek publiko nahiko gazte eta murrizta mugitzen dute azken urteetan. Beste planteamendu bat egin beharko litzateke ekintza honen inguruan, duen kostua ere kontutan izanik. Adibidez: Palomo Linares Elkarte Taurinoak, harri-kartoizko zezen buruekin kale Nagusia, Hipodromo etorbidea eta Geltoki kalean zehar, haur eta gazteentzako entzierroa egitea proposatzen du.</p>
<p>Familiak</p>	<p>MUSIKA: gauetako kontzertuak gazteek gehiago gozaten badituzte ere, arratsalde inguruan erromeriak ere kaleak izugarri girotuko lituzke, eta familia osoak kalean dauden momentua izanik, elkarrekin gozatu daiteke. 19.00etatik 21.00etara, eta afalostean erromeriak beste pixka bat jarraitzea proposatzen da.</p>
<p>Pertsona helduak</p>	<p>BOLO ETA TOKA ERAKUSTALDIA: Ostadarrek urtero Micehlingo bolatokian antolatzen du. Kalean egingo balitz, Okendo plazan edo, jubilatuek bereziki, baina herritarrak orokorrean gehiago animatuko lirarteke, bai ikustera, bai parte hartzera.</p> <p>ZUMABURU ETA ANDATZA PLAZAKO BERBENAK: mantendu behar dira, haien publikoa baitute; baina</p>





talde txikiagoak, aurrekontu gutxiagokoak beharko lukete izan (mugitzen duten jende kopurua ikusirik), eta batez ere dantzagarriak diren doinuak jotzen dituztenak. Euskaraz abestea ere baloratzen da. Dantzaldi hauek erdigunetik at mantendu beharko lirateke, publiko oso konkretu bat baitute.



3. GENERACIONES

* Varias de las propuestas se repiten en este caso, debido a que este grupo de trabajo centró su atención sobre todo a la edad.

<p>Niñas/os y adolescentes</p>	<p>TXUPINAZO: el txupinazo infantil debe caracterizarse especialmente, como comienzo de fiesta de las y los más jóvenes. Solo así debe mantenerse (ya que en caso contrario, no tendría sentido tener dos txupinazos). Como comienzo de fiesta que es, debe dársele importancia.</p>
<p>Jóvenes</p>	<p>BARRACAS: un día con precios más baratos fomentaría que más niñas y niños acudieran.</p>
<p>Jóvenes</p>	<p>TORNEOS DEPORTIVOS GRUPALES y COMPETICIONES: para fomentar la participación de la juventud en la fiesta han de organizarse este tipo de torneos: baloncesto 3x3, fútbolín humano,... Jóvenes y mayores pueden participar en este tipo de competiciones. Se valoran positivamente los juegos organizados por Ostadar los últimos dos años.</p>
<p>Jóvenes</p>	<p>VAQUILLAS: durante los últimos años, las vaquillas en Atsobakar han movilizado un público escaso, pero joven mayormente. Pueden hacerse otros planteamientos y así ahorrar el gran coste que esta actividad genera. Por ejemplo: la Peña Taurina Palomo Linares propone un encierro por la calle Mayor, avenida del Hipodromo y Geltoki kalea con cabezas de cartón-piedra de toro para niñas/os y jóvenes.</p>
<p>Familias</p>	<p>MÚSICA: los conciertos nocturnos están más dirigidos al público joven. Para las familias (distintas edades juntas), que se reúnen generalmente por las tardes, también podrían plantearse romerías que comiencen a eso de las 19.00 y que se alarguen hasta las 23.00-00.00 (con pausa para la cena), para que así disfruten del ambiente todos juntos.</p>
<p>Personas mayores</p>	<p>TORNEO DE BOLOS Y TOCA: Ostadar organiza este torneo cada año en el bolatoki de Michelin. Si este torneo pudiera plantearse en la calle, en Okendo por ejemplo, las personas mayores y ciudadanía en general se acercaría más al mismo, y quizá llegarían a participar más.</p>
<p>Personas mayores</p>	<p>VERBENAS DE ISLA Y ANDATZA PLAZA: deben mantenerse por ser espectáculos con un público fiel; pero se debería</p>





tratar de que fueran grupos más pequeños, con presupuestos más reducidos (debido al número de personas que acuden), y sobre todo que toquen ritmos bailables. De la misma forma, se valora positivamente que canten en euskara.

Estas verbenas deben mantenerse fuera del centro, debido a que responden a la demanda de un público muy concreto.



	OSTIRALA 27	LARUNBATA 28	IGANDEA 29	ASTELEHENA 30
GOIZA	<ul style="list-style-type: none"> - 12.00 Haur txupinazoa. Potentea, hurrei bideratua eta ondo karakterizatua. - Kale giroa sustatu musika ikuskizunen bidez. - Haurren programazioan zentratu beharreko momentua. 	<ul style="list-style-type: none"> - Egunez festa indartsua. - Kale animazio musikala. Kale giroa. - Kirol ikuskizunak herriratu (bolo eta toka, herri kirolak,...). 	<ul style="list-style-type: none"> - Egunez festa indartsua. - Kale animazio musikala. Kale giroa. - Kirol ikuskizunak herriratu (bolo eta toka, herri kirolak,...). - Txapelketa gastronomikoak. Aniztasuna, Lasarte-Oriako kulturak,... - 11.00: Haur danborrada. 	<ul style="list-style-type: none"> - Egunez festa indartsua. - Haur eta gazteentzat: jolasak eta ekintza parte hartzaileak, koadrillaka parte hartzeko aukera,... Haur eta gazteen programazioari atentzio berezia goiz-arratsalde tartetan.
ARRATSALDEA	<ul style="list-style-type: none"> - 19.00: Txupinazoa. Hasiera ekitaldia da, garrantzia handia eman behar zaio. - Kale giroa sortu, musika, ikuskizun kulturalak,... Mugikorrek behar dute izan. - Merkataritza sustatu: pintxo poteoak, txarangak, elektrotxarangak, batukadak,... - Kultur ekitaldi parte hartzaileak sustatu. 	<ul style="list-style-type: none"> - 13.00: Omenaldia: festaren ezaugarri da eta indartu behar da. - Kale giroa, ekitaldi parte hartzaileak. Kultur ekitaldi irekiak. - Taldekako kirolak kalea girotzeko, gazte eta familiei zuzendurik. - Koadrillen arteko jokoak (gazteentzat batik bat). - Musika: adin guztiak elkartzea bilatzen duten ikuskizunak arratsaldegau partean. - Kale animazio musikala. Parte hartzailea eta mugikorra. - Txapelketa gastronomikoak. Norbanakoek parte hartzeko aukera. 	<ul style="list-style-type: none"> - Kale giroa, ekitaldi parte hartzaileak. Kultur ekitaldi irekiak. - Musika: adin guztietara zabalik ordu tarte honetan. - Kale animazio musikala. - Gazteentzako eskaintza: koadrillakako txapelketak, kirol txapelketak,... 	<ul style="list-style-type: none"> - Kale giroa, ekitaldi parte hartzaileak. - Taldekako kirolak. - Koadrillen arteko jokoak. - Kale animazio musikala. Parte hartzailea. - Haur eta gazteei bideratutako ekintzak. - Barrakak: merkeago egun batetan. - Kultur ekitaldi irekiak, parte hartzaileak.
GAUA	<ul style="list-style-type: none"> - Piroteknia: egunero zertxobait. - Musika dantzagarria pertsona zaharrentzat. - Musika: berrikuntzak, programazio indartsua. Euskararen presentzia. 	<ul style="list-style-type: none"> - Berrikuntzak. Festak urtean behin dira. - Piroteknia: egunero zertxobait. - Kale animazio musikala. Kale giroa. 	<ul style="list-style-type: none"> - Programazio kultural zabala. Adibidez, Koreografia Lehiaketa. - Piroteknia: egunero zertxobait. - Musika ikuskizunak: gazteentzat. - Musika dantzagarria: pertsona zaharrentzat. 	<ul style="list-style-type: none"> - Piroteknia: egunero zertxobait. - Programazio kulturala gauetz ere bai, parte hartzailea eta inklusiboa.
EZAUGARRI OROKORRAK	<ul style="list-style-type: none"> - Kale giroa. - Festaren hasiera eguna da, nabaritu behar da. - Elkarrekin gauzak antolatzea sustatu baliabideak eskainiaz. - Euskararen presentzia (euskal musika, ikuskizunak,...). - Hondakinen kudeaketa. 	<ul style="list-style-type: none"> - Euskararen presentzia (euskal musika, ikuskizunak,...). - Hondakinen kudeaketa. 	<ul style="list-style-type: none"> - Euskararen presentzia (euskal musika, ikuskizunak,...). - Hondakinen kudeaketa. 	<ul style="list-style-type: none"> - Kale giroa, parte hartzea. - Festaren azken eguna da, amaiera borobila behar du. - Euskararen presentzia (euskal musika, ikuskizunak,...). - Hondakinen kudeaketa.



CARACTERÍSTICAS CLASIFICADAS POR DÍA

	VIERNES 27	SÁBADO 28	DOMINGO 29	LUNES 30
MAÑANA	<ul style="list-style-type: none"> - 12.00 Txupinazo infantil. Debe tener gran protagonismo y estar bien caracterizado. - Fomentar ambiente en la calle con música, espectáculos,... - Hay que centrarse en la programación infantil sobre todo. 	<ul style="list-style-type: none"> - Fomentar la fiesta durante el día. - Animación callejera musical. - Acercar al pueblo espectáculos deportivos (bolos y toca, deporte rural, pelota,...). 	<ul style="list-style-type: none"> - Fomentar fiesta durante el día. - Animación callejera musical. Ambiente de calle. - Espectáculos deportivos. Cercanía. - Concursos gastronómicos. Diversidad. Culturas de Lasarte-Oria. - 11.00: Tamborrada infantil. 	<ul style="list-style-type: none"> - Fomentar fiesta durante el día. - Fiesta dirigida a niñas/os y jóvenes: juegos y actividades participativas, juegos en cuadrilla,... Atención especial durante la mañana y la tarde a la programación infantil-jóven.
TARDE	<ul style="list-style-type: none"> - 19.00: Txupinazo. Es el acto de comienzo, debe dársele gran importancia. - Fomentar ambiente callejero, música, espectáculos culturales,... Importante: móviles. - Comercio local: pintxo-poteos, charangas, electrocharangas, batukadas,... - Actividades culturales donde la ciudadanía pueda participar. . 	<ul style="list-style-type: none"> - 13.00: Homenaje: es una tradición, caracteriza la fiesta. - Ambiente callejero: actividades participativas, espectáculos culturales abiertos. - Jóvenes y familias: deportes en grupo, campeonatos entre cuadrillas. - Música: durante la tarde-noche espectáculos para todas las edades (familias). - Animación musical callejera: móvil y participativa. - Concursos gastronómicos dirigidos a personas y no a Sociedades. 	<ul style="list-style-type: none"> - Ambiente callejero: actividades participativas, espectáculos culturales abiertos. - Música: durante la tarde-noche espectáculos para todas las edades (familias). - Animación musical callejera: móvil y participativa. - Oferta para jóvenes: campeonatos entre cuadrillas, juegos en relación con deporte,... 	<ul style="list-style-type: none"> - Ambiente callejero: actividades participativas. - Deportes en grupo. - Competiciones entre cuadrillas. - Animación callejera musical: participativa. - Actos dirigidos a niñas/os y jóvenes. - Barracas: más baratas durante un día. - Programación cultural amplia y participativa.
NOCHE	<ul style="list-style-type: none"> - Pirotecnia: todos los días algo. - Música: bailables para las personas más mayores. - Música: novedades, cosas que no se ven en otras fiestas del pueblo. Importancia: presencia del euskara. 	<ul style="list-style-type: none"> - Novedades: las fiestas son una vez al año. - Pirotecnia: presencia a diario. - Animación callejera musical. 	<ul style="list-style-type: none"> - Programación cultural amplia y participativa: por ejemplo, Concurso de Coreografías. - Pirotecnia: presencia a diario. - Música: de noche para jóvenes. - Bailables para las personas mayores. 	<ul style="list-style-type: none"> - Pirotecnia: presencia a diario. - Programación cultural nocturna: participativa e inclusiva, abierta a todo el mundo.
CARACTER. GENERALES	<ul style="list-style-type: none"> - Ambiente de calle. - Es el primer día de fiestas, debe notarse. - Organización de actos en colaboración con entidades. El Ayuntamiento debe ofrecer medios. - Presencia euskara (música, teatros). - Residuos: recogida selectiva. 	<ul style="list-style-type: none"> - Presencia del euskara (actos culturales, música,...). - Residuos: recogida selectiva. 	<ul style="list-style-type: none"> - Presencia del euskara (actos culturales, música,...). - Residuos: recogida selectiva. 	<ul style="list-style-type: none"> - Ambiente de calle. - Último día de fiesta, dar importancia al final. - Presencia del euskara (actos culturales, música,...). - Residuos: recogida selectiva.

4. DINAMIKAREN HURRENGO PAUSOAK ETA BILERAREN BALORAZIOA / SIGUIENTES PASOS DE LA DINÁMICA Y VALORACIÓN DE LA REUNIÓN:

Lan-taldeetan ezaugarri guztiak jaso eta foro orokorrean guztiak birpasatu ostean, dinamikak aurrerantzean egingo duen bidea zein den azaldu da: ezaugarri guztiak aktan jaso ostean, hau parte hartzaile eta gonbidatu guztiei helaraziko zaie, eta bigarren bilera batetarako deialdia egingo da, zeinetan jada proposamen zehatzak bilduko diren.

Una vez recogidas todas las características de la fiesta en los grupos de trabajo y debatidas en el foro, se han explicado brevemente cuales serán los pasos siguientes en lo que a la dinámica se refiere: una vez recogidas todas las características en un acta que se hará llegar a todas las personas participantes e invitadas, se convocará un nuevo encuentro para pasar ya a recoger propuestas concretas.

Honekin batera, herritar parte hartzaileei bileraren, dinamikaren eta giroaren balorazio orokor bat egiteko eskatu zaie (amaierako taulan).

Además, se ha pedido a las personas participantes que valoraran la dinámica y el ambiente de la reunión en general (tabla del final).

Galderarik ezean, topaketa amaitutzat eman da. Hurrengo topaketa OTSAILAREN 25ean eramango da aurrera.

Al no haber preguntas, el encuentro se ha dado por finalizado. El siguiente se llevará a cabo el 25 de FEBRERO.



Bilera Reunión	16	0	0
Giroa Ambiente	11	3	0
Dinamika	12	0	0